



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 6a

120. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, gazteen bizikidetzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, beken arloko politika orokorrari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunitate ekintza prebentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan. Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko. Hezkuntza Batzordeak onetsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, hondakinen arloko PIMA planetako estatu-funtsen banaketari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Agoizko Simens-Gamesako plantillaren egoerari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- Galdera, enplegu-politika aktiboetarako dirusarreraren partidei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratzen den talde espezifikuari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (11. or.).

—Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planean Nafarroak izan duen lankidetzari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (12. or.).

—Galdera, 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzeko Espainiako Estrategia berria egiteko lantaldeak eratzeko proposamenari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (13. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2020ko urriaren 29an eginiko Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, gazteen bizikidetzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko interpelazioa, gazteen bizikidetzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Interpelazioa, gazteen bizikidetzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Interpelazioa, beken arloko politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko interpelazioa, beken arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Interpelazioa, beken arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunitate ekintza prebentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan.

GEROA BAI ETA EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita komunitate ekintza prebentiboaren lana sustatu eta aldeztu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Aldaketa eta ziurgabetasuna ohiko mintzagai bihurtu dira hilabete hauetan zehar. Premia sozial eta emozionalako egoerak hirukoiztu egin dira, eta haien larritasun maila ere areagotu da. Logika berriak eskatzen du gure esku-hartzeak birmoldatzea, haurrak babesteko sistema are gehiago indartzeko esku-hartze komunitarioan. Une honen latzak behartzen du esku-hartze kopurua zedarriztera, premiei buruzko irizpideak larritasunaren arabera sektorizatuz.

Egoera korapilatsuan gaude, non haur eta gazteak modu bereziki gogorrean ari diren pairatzen pandemia honen ondorioak. Elkarren segidako konfinamenduek eta murrizketa sozialek haien garapen sozio-emozionala eremu itxietara zokoratu dute. Eta eremu horietan gertatzen dira babesgabetasuneko eta eskubideen urraketak egoera gehienak.

Parte-hartzearen arloko mugaketa sozialek eragin larria izan dute adingabeen garapen emozionalean. Beldurrak, ziurgabetasunak eta ohitura

txarrak sortu dira, heldutasuneranzko etapak zailtzen dituztenak, nerabezaroa bezain prozesu garrantzitsuak konplexuago bihurtuz. Babes-sistema ahul batek ondorio gisa ekartzen du babesgabetasuna, eta aukerarik ez egotea arazoei unean uneko arreta eraginkorra eskaintzeko eta etorkizuneko egoerei aurrea hartzeko. Osasungaitasun sozialaren ondorioen lehenbiziko ebidentziekin topo egiten ari gara. Babesgabetasun egoerak larriki ugaritu dira, eta familia eta gizarte arloko babesgabetasunaren datu larriek gora jo dute. Nerabeen droga-kontsumoa modu esponentzialean handitzen ari da, igotzen ari dira gaixotasun mentalak, fobiak, beldurra, ziurgabetasunak, depresioak... Halaber ari dira igotzen menpekotasuneko harremanak, kaltegarriak eta toxikoak, adingabeen autonomia prozesuak zuzenean kaltetzen dituztenak. Arazoak bizikidetzan, familiaren barneko eta gizarteko indarkeria, agerian uzten dutenak tresna komunitarioak berehala eskuratzeko beharra.

Egungo egoeran, eta hasierako lerroetan adierazten den moduan, gure zerbitzu komunitarioak bideratuta daude aurrean dugun osasun- eta gizarte-krisiak sortutako larritasun egoerak samurtzera. Horregatik, indar teknikoak eta konpromiso komunitarioak bideratzen dira zaintzaren eremu sozio-emozionalak indartzera. Azalpen labur batean sinpletzearen, esan daiteke eremu horretan jarraitzen dela gure ludoteketako logika praktikoa- rekin, baina egungo osasun- eta gizarte-egoerara moldatuta.

Haurren eskubideen sustapenean eta prebentzio zerbitzuen funtsezko eginkizunean sakontzen duen lege-esparruaren testuinguruak esku-hartze komunitarioaren logika ulertaraziko digu:

- Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa, 1989koa, Nazio Batuen.

- Adingabeen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa, non jasotzen baita pertsona edo agintari oro eta, bereziki, beren lanbide edo eginkizunengatik adingabe batek tratatu txarrak, arrisku egoera bat edo balizko babesgabetasuna pairatzen dituela antzematen dutenak, behartuta daudela agintariei edo haien agente hurbilenei horren berri emateara, adingabeari beharrezkoa duen berehalako laguntza emateaz gain, betiere behar den diskrezioaz jardunez eta abiatutako ekintzetan

saihestuz adingabearen bizitzari beharrik gabeko aldaketak egitea.

- Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 15/2006 Foru Legea, helburu nagusitzat duena adingabeen ongizaterik hoberena lortzea, eta azpimarra jartzen duena adingabeen babeserako sistemari eta haien eskubideen aitopenean.

- 7/2009 Foru Dekretua, 15/2006 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onesten duena.

- Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea, eta hura garatzen duen foru dekretua.

- Ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duena.

- Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko 2017-2023 urteetarako II. Plan Integrala (Nafarroako Gobernua), non ezartzen baita prebentzio komunitarioaren helburua dela haurrek eta gazteek bizitza komunitarioan parte har dezaten. Definitzen duenez, "prebentzio komunitarioak" komunitatean duen parte-hartzea zenbait ezagutzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat da, ezagutza horiek beharrezkoak izaki bizitza sozial eta komunitarioarako, gizarte eta hezkuntza arloko proiektuak antolatzeko eta besteei eta norberari laguntzeko.

- Iruñeko Haur eta Nerabeendako I. Plana, 2018-2022 urteetarakoa (Iruñeko Udala), haur eta nerabeen sustapenerako jarduketa-lerro nagusiak biltzen dituena.

Ilido horretan, zerbitzu horren helburua da oinarritzko prebentzioko edo izaera unibertsaleko esku-hartzeak garatzea, koordinazioa, eta jakinaraztea, bidezko izanez gero, Oinarritzko Laguntzako haur eta familien lantaldeekin batera, babesgabetasun egoerak antzematen badira, eta bigarren mailako prebentzioko jarduketan bidez laguntzea Haur eta Familia Taldeetatik eta Haurren eta Nerabeen Arretarako Taldeetatik igorritako haur eta nerabeei.

Prebentzio-ekintza komunitarioko zerbitzua kokatzen da, adierazi den bezala, Gizarte Zerbitzuetako oinarritzko laguntzaren barruan, zeina definizioz baita komunitatean edo lurralde batean garatzen dena, eta bideratzen da lotura komunitarioak sendotzera, herritarrekin, entitate sozialekin eta beste zerbitzu publiko batzuekin elkarlanean.

Horregatik, alderdi komunitarioa funtsezkoa da, auzoa delako oinarritzko laguntzarako lurralde-unitatea, eta ikusia da bizi-kalitatea hobetzen dihar-

duten eragile ezberdinen topagune eta artikulazio-gune gisa. Halaber, sozializazio eremu bat da. Bertan bultzatu egiten da familien arteko eta berdinak diren taldeen arteko harremana, ezarriz lankidetzak, elkartasun- eta elkarlaguntza-printzipioak, eta aldi berean aberasten dira pertsonen autoestimua, norberaren garapena, duintasuna eta kontzientzia-hartzea.

Gure zerbitzuen esku-hartzea gidatzen duten printzipioak ulertu beharra dago, ikusi ahal izateko babes komunitarioaren esparrua mantentzeak duen garrantzia, COVID-19ak sortu duen zailtasun sozialeko egoeran.

- Prebentzioa, alegia, gerta daitekeenari begirako prestaketa, haurrei, nerabeei, familiei eta, erreferentea den heinean, komunitateari oro har ere tresnak eskainiz beren autonomia sustatzeko.

- Haur eta nerabeendako tratua onak: lehentasunen erdigunean jartzea haur guztien ongizatea eta osasuna. Bereziki beren eskubideak urratuak izan dituzten edo urratuak dituzten horienak.

- Adingabearen interes gorena beste edozein egoerari gailentzen zaio, eta prebentzio-ekintzan parte-hartzea borondatezkoa da.

- Haurrek eta nerabeek beren babes propioan subjektu aktibo gisa parte hartzea.

- Integraltasuna, gizabanakoaren eta taldearen garapenerako aukerak sorteko, arreta emanez haur eta nerabeen garapen-arlo guztiei, bai eta haien erreferente diren helduenei ere.

- Bizitza komunitarioan parte hartzea eta proaktibitatea komunitatearen beraren eragile gisa.

- Genero ikuspegia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala sustatzeko.

- Errespetua eta bizikidetzak, garapen komunitarioarako oinarri gisa.

- Baliabideen jasangarritasuna eta ingurumenaren zainketa.

- Dibertsitatearen sustapena: funtzionala, kulturala eta hizkuntza arlokoa.

- Transbertsaltasuna: koordinazioa eta sareko lana komunitateko eragileekin eta erakundeekin.

Ikus dezakegunez, guztietan azpimarratzen da adingabearen interes gorena eta parte hartzeko eskubidea praktikan nola gauzatzen den.

Hori dela-eta, talde parlamentariook ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditugu:

- Nafarroako Parlamentuak oinarritzko zerbitzu bezala aitortzen eta aldeztu du Komunitate Ekin-

tza Prebentiboko Zerbitzuek haurrak babestearen arloan egiten duten lana.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du komunitate ekintza prebentiborekin lana sustatu eta aldeztu dezan, errazte aldera beste zona geografiko batzuetara hedatzen dadin.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du komunitate-prebentzioko talde-

ekin eta arloko adituekin batera lan egin dezan, babes komunitariorako proposamen berriak prestatze aldera, COVID-19aren krisiak sortutako egoerei aurre eginen dietenak.

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentariak: Isabel Aranburu Bergua, Patricia Perales Hurtado eta Marisa De Simón Caballero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2020ko azaroaren 4an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat abiaraz dezan, helduen artean hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du plan bat abiaraz dezan helduen artean gure Komunitateko berezko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzen ezagutzaren akreditazioa sustatzeko, Nafarroako Hezkuntza Eskola Ofizialaren, Hezkuntza Departamentuaren eta atzerriko beste organismo batzuen bidez”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, hondakinen arloko PIMA planetako estatu-funtsen banaketari buruzkoa.**ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, hondakinen arloko PIMA planetako estatu-funtsen banaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Joan den urriaren 27an Ministroen Kontseiluan onetsi zuen lurraldearen arabera banatzea 5,87 milioi euro, iturria dutenak PIMA-Hondakinen Planean eta hondakinen politikari egotzitako aurrekontu-lerroetan, helburua izanik jarduketak sustatzea hondakinen kudeaketa hobetzea, arlo hori dagokionez Europako eta Espainiako helburuak lortzeko eta sektoreari lotutako berotegi-efektuko gas-isuriak murrizteko.

Funts horien bidez finantzatutako hondakin-politikan sartzan diren jarduketan artean ditugu etxeko eta komunitateko konpostatzerako eta biogasaren erabilera efizienterako proiektuak, eta PIMA Hondakinen esparruan jarduketak finantzatzan dira bio-hondakinak gaika biltzeko, konpostatzerako instalazioak eta sukaldeko olio erabiliaren bilketarako biodiesela ekoizteari begira.

Halatan, hondakinetarako laguntzak banatzen dira bost motatako jarduketetan, bakoitzak bere zuzkidura ekonomikoarekin:

- Bio-hondakinak gaika biltzeko proiektuak: 1.850.000 euro.

- Etxeko eta komunitateko konpostatzerako proiektuak: 1.621.061 euro.

- Konpostatzeko instalazioen proiektuak: 1.850.000 euro.

- Sukaldeko olio erabiliaren proiektuak: 300.000 euro.

- Biogasaren proiektuak: 250.000 euro

Aurrekontu-kreditu horiek erabaki ziren Ingurumeneko Konferentzia Sektorialean, Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko ingurumen arloko lankidetzarako organoan, joan den irailaren 21eko bileran.

Ingurumena Sustatzeko Plana-Hondakinei egotzitako funtsen banaketan, guztira diren 3.650.166,68 euroetatik Nafarroak ez du ezer eskuratuko. 0 euro. Eta hondakinen politika abiarazteko politikari dagokionean, guztira diren 1.664.669,04 euroetatik Nafarroak 4.828,56 euro baino ez du eskuratuko.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

- Zergatik ez du Nafarroa jasoko inolako zenbatekorik Ingurumena Sustatzeko Plana-Hondakinei egotzitako funtsen banaketatik?

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo haren bidez hondakinen arloan eskumena duten toki entitateek Estatuko Gobernuari proiektuen bat aurkeztu al diote hondakinak gaika biltzeko, etxeko eta komunitateko konpostatzerako, konpostatzerako instalazioetarako, sukaldeko olio erabiliaren bilziklatzerako edo biogaserako?

– Hondakinen arloan eskudun diren toki entitateetatik zeinek eskatu dio Gobernuari proiekturen bat hondakinatarako PIMAK finantzatzen dituen gaiekin loturik?

– Zilegitzat jotzen al duzu Nafarroa 5,87 milioi horien banaketatik baztertu izana?

– Nafarroako Gobernuak ontzat eman al zuen funts horien banaketari, Ingurumeneko Konferen-

tzia Sektorialean, Gobernuaren eta autonomia-erkidegoen arteko ingurumen arloko lankidetzarako organoan, joan den irailaren 21eko bileran?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, 2017-2019 aldia dela-eta Tracasa Instrumental SL enpresari egindako fiskalizazio-txostenean adierazitako justifikatu gabeko orduei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Kontuen Ganberaren "Tracasa Instrumental SLri egindako enkarguak (2017-2019)" izeneko fiskalizazio-txostenean adierazten zen 2020ko urtarrilaren 1ean fakturatutako eta alde zurririk ordaindutako baina egin gabeko orduen kopurua 10612 zela. Parlamentari honek honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1.- 10612 ordu horien justifikazio zehaztua.

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Agoizko Siemens-Gamesaren Kanpoko Birkokatze Plana dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiten duen jarraipenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak

honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Langileen Estatutuaren 51.10) artikuluan jasotzen denez, iraungitze EEE batek enpresako 50 langile baino gehiago ukitzen baditu, enpresak birkokatze plan bat eduki beharko du, gutxienez ere 6 hilabeteko iraupenarekin, langileei lanerazten laguntzeko.

Legeak eskatzen duen moduan, Siemens-Gamesak Agoizko planta itxi ondoren, zati sozialarekin birkokatze plan bat negoziatu zuen, 12 hilabeterako eta 50 urtetik gorako langileentzat 15 hilabeterako. Aipatu plana kanpoko enpresa batekin kontratatu du eta osorik finantzatzen du.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren betebeharra da Kanpoko Birkokatze Plan horren jarraipena egitea.

Betebehar horren arabera, zer jarraipen egin du orain arte?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Agoizko Simens-Gamesako plantillaren egoerari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Agoizko Simens-Gamesako plantillaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Langileen Estatutuaren 51.10) artikuluan jasotzen denez, iraungitze EEE batek enpresako 50 langile baino gehiago ukitzen baditu, enpresak birkokatze plan bat eduki beharko du, gutxienez ere 6 hilabeteko iraupenarekin, langileei lanerazten laguntzeko.

Legeak eskatzen duen moduan, Siemens-Gamesak Agoizko planta itxi ondoren, zati sozialarekin birkokatze plan bat negoziatu zuen, 12 hilabeterako eta 50 urtetik gorako langileentzat 15

hilabeterako. Aipatu plana kanpoko enpresa batekin kontratatu du eta osorik finantzatzen du.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren betebeharra da Kanpoko Birkokatze Plan horren jarraipena egitea.

Betebehar horren arabera, zein da gaur egun Agoizko lantegiko plantillaren egoera?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Ekitaldi honetan Enplegu eta Lan Aferen Sektorereko 77. Konferentzian erabaki zen autonomia erkidegoei 1.048 milioi banatzea enplegu-politika aktiboak garatzeko. Enplegu eta Lan Aferen Sektorereko 78. Konferentzian erabaki da autonomia erkidegoei 895.916.723 euro banatzea prestakuntza, enplegu eta modernizazio planetarako.

Azkenean diru-sarrera horiek hasiera batean aurrekontuetan aurreikusitakoak baino txikiagoak izanez gero, erabaki horrek eragin ekonomikoren bat edukiko luke Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuan?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, enplegu-politika aktiboetarako dirusarreraren partidei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu-politika aktiboetarako dirusarreraren partidei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak

honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Ekitaldi honetan Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko 77. Konferentzian erabaki zen autonomia erkidegoei 1.048 milioi banatzea enplegu-politika aktiboak garatzeko. Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko 78. Konferentzian erabaki da autonomia erkidegoei 895.916.723 euro banatzea prestakuntza, enplegu eta modernizazio planetarako.

Nafarroako Gobernuaren 2020rako gastuen aurrekontuan Sektoreko Konferentziarekin lotutako diru-sarrerak daude. Nola geratzen dira orain, zehazki, diru-sarreraren partida horiek eta zein dira zenbatekoak, egindako aurreikuspenarekin alderatuta?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratzen den talde espezifikokoari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratzen den talde espezifikokoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Berriki Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko 78. Konferentzia egin da. Bertan 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planari ekin zitzaion, zeina exekutatu duten Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoek. Talde espezifikokoari, autonomia-erkidegoen kolaborazioarekin, arduratu da hura birformulatzeaz, COVID-19a agertu ondoko testuinguru berrira egokitzeko. Lan horrek ahalbidetu du normaltasun berrira egoki-

tzea eta birformulatzea planaren eraginkortasuna ebaluatzen lagunduko duten adierazleak.

Zein dira 2020rako Enplegu Politikako Urteko Plana birformulatzeaz arduratu den talde espezifikoak osatu duten kideak?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planean Nafarroak izan duen lankidetzari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planean Nafarroak izan duen lankidetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak

honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Berriki Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko 78. Konferentzia egin da. Bertan 2020rako Enplegu Politikako Urteko Planari ekin zitzaion, zeina exekutatu duten Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoek. Talde espezifiko bat, autonomia-erkidegoen kolaborazioarekin, arduratu da hura birformulatzeaz, COVID-19a agertu ondoko testuinguru berrira egokitzeko. Lan horrek ahalbidetu du normaltasun berrira egokitzeta eta birformulatzea planaren eraginkortasuna ebaluatzen lagunduko duten adierazleak.

Zertan datza Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskaini duen lankidetzatza?

Iruñean, 2020ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategia berria egiteko lantaldeak eratzeko proposamenari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategia berria egiteko lantaldeak eratzeko proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Berriki Enplegu eta Lan Aferen Sektoreko 78. Konferentzia egin da. Bertan proposamen bat gehitu zen 2021-2024 aldirako Enplegua Aktibatzekeo Espainiako Estrategia berriarekin hasteko lantaldeak eratzeko, zeinetan oinarrituko baita Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionalaren enplegu-zutabea.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Sektoreko Konferentzian aurkeztutako proposamen horri buruz?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2020ko urriaren 29an eginiko Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatua betetzeko, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2020ko urriaren 29an eginiko Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2020ko urriaren 29an eginiko Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak

Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaidaren ondorioz 2020ko urriaren 29an eginiko Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak

Lehena.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du planetatik ekintzetara pasa dadila eta Europako funtsak balia ditzala Nafarroako enpresek, langileek, administrazio publikoek eta gizarteak, oro har, aurrera egin dezaten beren jarduerak digitalizatzeko prozesuan, teknologia berriei buruzko prestakuntza-programen, IKTetan inbertitzeko pizgarrien, interneten erabileraren eta konektibitatearen hobekuntzaren bidez. Horrela bakarrik lortuko dira produktibitate-estandarrak, eskualde egokituenei etorkizuna gidatzeko aukera emanen dietenak. Nafarroak horietako bat izan beharko du, duela hamabost urte izan zen bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan egin dezan energia berriztagarrien esparruko lidergoa berreskura-

tzeko, arlo horretan lankidetzaz publiko-pribatuko planak eta proiektuak sustatuz. Une honetan, zalantzarik gabe, elektrizitate berdea energia sortzeko iturri nagusi izanen duten prozesu guztiak bultzatzen dituen sektorea da. Nafarroan kokatuta dauden CENER eta sektoreko enpresa nagusien presentziak pizgarri bat izan behar du krisiaren aurretik existitu zen eta orain berriro abiarazi behar den industria-sare oso bat garatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erraztu dezan nekazaritzako elikagaien industria egokitu dadila laborantzako, eraldaketako eta banaketako ingurumen-eskakizun berri eta ukaezinetara, dibertsifikazioari ekarpena egiten jarraitzeko, Nafarroako lehen sektoreko jarduerari eutsiz eta landa-eremuko biztanleriari eusten lagunduz.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ikus-entzunezko ekoizpena bultzatzearen alde egiten duela. 2014an ezarritako pizgarria industria hasiberri baten ernamuina izan da, eta orain hura zurkaiztu beharra dago eta industria horri lotutako prestakuntza-graduak garatzeko balio behar du.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren inbertsio-ahaleginak egin ditzan lurraldearen orekarako eta iraunkortasunerako beharrezkoak diren bi azpiegiturak ahalik eta lasterren amaitzeko: AHTa eta Nafarroako Ubidea. Merkantziak eta pertsonak bitarteko azkar, seguru eta jasangarrien bidez komunikatzeak lurraldeak berdintzen ditu eta aukera berriak zabaltzen ditu. Era berean, ureztatze eraginkorrerako, edateko eta industria-rako ura izateak aukera emanen dio Nafarroako Erriberari Iruñeko merindadearekiko duen distantzia ekonomikoa murrizteko; izan ere, Iruñetik urrun dagoenez, ez du hartatik onurarik ateratzen.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gida dezan mugikortasun elektrikorako trantsizioa, gure erkidegoan

automobil-sektoreak hasitako eraldaketarekin bat etorritz. Automobilen elektrifikazioari buruz iragarritako proiektuek ez dute garapen esanguratsurik ekarri, eta baliabideek ez dute emaitzarik izan. Orain ez da zentro edo institutu espezifikoaren garaia. Munduko automobilaren industriak bere erabakia hartu du, eta guri dagokigu hura babestea. Administrazioek, orain, energia nahikoa izatea eta energia hori lurralde osoan modu egoki eta orekatuan banatzea ahalbidetuko duten proiektuak erraztu behar dituzte, eta berrikuntza elektrikoa modu progresibo eta ordenatuan errazteko lankidetzan jardun behar dute sektorearekin batera, alde batera utziz gure industria- eta lan-errealitatea aintzat hartzen ez duten eta nahi den azken helburua —automobilaren industriak etorkizuneko ereduak sortzen jarrai dezan— eragotziko duten helburu handi eta azkarrak.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du banda zabaleko bigarren plana amai dezan, lankidetzaren publiko-pribatua sustatzeko, nafar guztiek eta Nafarroako enpresek zuntz optikoa eskura izan dezaten eta digitalizazioaren aroan benetan parte hartu ahal izan dezaten. Era berean, zuntzaren garapen hori aprobeztatu beharko du 5G teknologiaren ezarpena eta garapena errazteko.

Bigarrena.

1. Nafarroako Parlamentuak erakusten du konpromisoa duela etengabeko elkarrizketa sozialarekin Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ordezkariaren handieneko sindikatu- eta enpresaburu-erakundearen arteko topaketarako, partaidetzarako eta negoziazio instituzionalerako organo gorenarekin; izan ere, kontseilu horrek izan behar du aurre egin beharreko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren erreforma ekonomiko eta sozialen indar eragilea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du esparru horretan lehen-tasuna eman diezaion Enplegu Plana presaz onartzei.

Hirugarrena.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin dezan SARS-CoV-2 detektatzeko testaren kopuru nahikoa, testaren positibotasun-tasa %4koa edo txikiagoa izan dadin modu iraunkorrean, horixe baita Osasun Ministerioak eta autonomia-erkidegoek normaltasun berri-rako adostutako atalasea, zeina Osasunaren Mundu Erakundeak eta Gaixotasunak Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Europako Zentroak gomendatutako mugen nahiko antzekoa baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta gehien laburtzeko COVIDaren sintoma susmagarriak dituzten pertsonen osasun-sistemearekin lehen harremana izan eta proba hori egin zaion pertsonari baieztapen diagnostikoaren testaren emaitza zuzenean bidali arte igarotako denbora; denbora hori ez da sekula 24 orduetik gorakoa izanen.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du era egonkorrean indartu ditzan arakatzaileren baliabideak eta testak egiteko materiala, teknologia eta giza baliabideak, berehalako erantzuna eman ahal izateko isolamendu goiztiarrak egiten eta pandemia kontrolatzen lagunduko duen anbizio handiko arakatzeko arin eta eraginkor bati, kasua berresten denetik testaren emaitza arte igarotako denbora 24 ordura baino gutxiagora laburtuz.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sentsibilizazio-kanpaina eraginkorrak egin ditzan berariaz gazteei eta nerabeei zuzenduta, bai eta arrisku bereziko beste kolektibo batzuei ere, lagun dezaten gizartea sentsibilizatzen eta inplikatzeko birusa transmititzea saihesteko prebentzio-neurrietan.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du argitara dezan pandemiaren bilakaerari buruzko informazio guztia, eta ebaluazio independente bat egin dezan egindako akatsak aztertzei eta hobetu beharreko arloak hautemateko.

Laugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Egungo zerbitzu publikoak indartzeko neurri urgentek ezartzea, Nafarroako familiek adingabeak eta mendeko pertsonak zaintzeko duten premiari erantzuteko.

2. Eskaintza publikoa indartu eta zabalduko duten zerbitzu publikoen sorkuntza progresibo diseinatzei plan bat egitea, adingabeen eta mendeko pertsonen zaintza bermatzeko.

3. Beharrezko baliabideak jartzea eta aurreko legealdian onetsitako berdintasun-legeak garatzea: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea eta LGBTI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea.

4. Indarkeria matxistaren biktimei abegi egiteko eredu berriari ekitea.

5. Desgaitasun-plana osorik garatzea.

6. Krisiaren ondorioz sortu diren premia larrienei erantzuteko langile gehiago jartzea; esate baterako, errenta bermatuaren eskaerak azkarra izapidetzeko, zerbitzu psikologikoak emateko, koordinazioa hobetzeko, larrialdietarako laguntzetarako eta premia horiek identifikatzeko.

7. Errenta Bermatuaren egungo Legea aldatzea, halako moldez non haren iraupena bermatu eginen baita langabezia edo behar adinako diru-sarrerara ekonomikorik eza dagoen bitartean.

8. Etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzeko neurri eraginkorrak ezartzea:

– Etxebizitza hutsen errolda egiten amaitzea.

– Baliabide indartuak izatea alokairuko etxebizitzaren sare publiko bat garatzeko, haien baldintzak hainbat kolektiboren beharretara egokitu dituen.

– Legeria propio eta eraginkorra aktibatzea, alokairu-prezioak direla-eta abusua eta espekulazioa eragotziko dituen eta kolektibo guztiei sarbidea bermatuko dena.

– Etxebizitza hutsak zaharberritzeko ezohiko neurriak hartzea, jarduera horri lehentasuna emanaz sustapen berrien garapenera aurretik.

– Bizikidetzaren eredu berriak bultzatu eta horiekin estaldura emanen den araudia garatzea.

Bosgarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

1. Datozen urteetan lerroka ditzan Gobernuari osatzen duten departamentuen estrategiak Europatik estatuarekin koordinatuta trantsizio ekologikorantz markaturiko funtsezko ildoekin, horietan guztietan eragina duen gai transbertsala delako.

2. Beharrezkoak eta ezinbestekoak diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak para ditzan, eskura dauden baliabideak optimizatuz, Nafarroa Green estrategian planteatutako proiektu guztiak urgentziarik, azkartasunik, eraginkortasunik eta efizientziarik handienaz garatzeko.

3. Etxebizitza publikoen parkea handitu dezan kontsumo ia nuluko eraikinen parametroak erabiliz (nZEB), eta eraikinak birgaitzeko eta hiri eraikuntza berronertzeko politikak areagotu ditzan.

4. Eraikuntza industrializatzeko institutu bat sortu dezan Nafarroan, garapen teknologikoa eta prestakuntza ekarriko dituen sektorea birmoldatzeko zereginean, kalitate handiagoko etxebizitzak, efiziente eta eskuragarriak, eskaintze aldera.

5. Lankidetzaren publiko-pribatua sustatu dezan, Nafarroako enpresak –bere tamaina eta gaitasunetik harago– bere etorkizuneko garapena Europar Batasunetik diseinatutako ardatz nagusi horiekin uztartzeko.

6. Urratsak egin ditzan enpresa-ehundurak, ezagutza-zentroek eta administrazioaren zentroek ere energia berriztagarrien eta mugikortasun berritzaile eta jasangarriaren alorretan osatzen duten ekosistema sendotzeko.

7. Energia berriztagarrien erabilerrari bultzada eman diezaion, ikatzetik eratorritakoen ordez, berotegi-efektuko gasen erabateko desagertzerako helburuak erdiesteko, horretarako ezarritako epeetan.

8. Jasangarritasuna sendotu dezan, eraldagarri gisa aplikatu ahal izateko gure ekoizpen-ereduari, gure kontsumo-moduei, eraikinak edo hiriak egiteko erei, industriari buruzko ikuspegiari, mugitzeko moduari edo gure natur ingurunearekin erlazionatzeko moldeei.

9. Ekonomia zirkularra indartu dezan, kontsumo jasangarri eta arduratsua sustatuz, "zero kilometro" produktuetan oinarritua, horrenbestez hobetuz biodibertsitatearen kudeaketa eta kontserbazioa, hori izaki klima-aldaketaren efektuak borrokatzeko modurik onena, baliabide-erabilera oso errentagarriaren bidez.

10. Energia ekoizteko sisteman eta horren kontsumoan aldaketa bat antolatzea, energia berriztagarriaren sorkuntza izan dadin inpaktu txikiagokoa eta ekoizpen eta kontsumoan hurbiltasun handiagokoa. Zerbitzu publikoa lehenetsi beharra dago; hortaz, ekoizpena bideratu behar litzateke lurraldearen eta herritarren premiaz asetuz. Halaber, edozein proiektu berriri ekin baino lehen, azpiegituren optimizazioa sustatu behar da. Aintzat hartu behar da kontsumo-guneekiko hurbiltasuna eta autokontsumoaren, sistema zirkularren eta energia-kontsumoaren gutxitzearen sustapena.

Seigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

• Administrazio publikoa digitalizatzeko behar gorrian aurrerapausoak emateko beharrezkoak diren programak gara ditzan. Digitalizazioa ahalbidetuko ditu prozeduren administrazio-simplifikazioa eta zerbitzu publikoen modernizazioa. Digitalizazio hori uztarturik egon beharko da bertako langileen prestakuntza egokiarekin eta herritar guztientzako irisgarritasun-bideekin.

- Zerbitzu publikoen funtzionamenduan herritarrek parte-hartzea izan dezaten sustatzea, eta gardentasuna areagotzea komunikazioan, zeina inklusiboa izanen baita.

Osasungintza publikoaren alorrean:

- Oinarrizko osasun laguntza indartzea, giza baliabideak nahiz teknologikoak indartuz, erkidego-erizaintza aditua eta telemedikuntza ezarriz, bitarteko egokiak direnez gero diagnostikoa hobetzeko, baina betiere babestuta utziz gaixoaren eta sendagilearen arteko harremana.

- Bere osotasunean gara dezan Medikuntza Pertsonalizatu eta Doitasunezko estrategia, zeinak paradigma-aldaketa bat baitakar osasungintzan, eta ahalbidetzen baitu eraginkoragoak eta seguruagoak izatea prebentzio-, diagnostiko- eta terapia-jardun medikoak, beharrik gabeko gastuak ekiditeko aukera emanik eta osasungintza-sistemen jasangarritasunari lagundurik.

Hezkuntza publikoaren alorrean:

- Dibertsitatea artatzeko hezkuntza-tresna guztiak indartu ditzan ikastetxe publiko guztietan; batez ere, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen edo desabantaila soziokulturalean dauden ikasleen portzentaje handienak dituztenetan. Halaber, egungo osasun-krisiaren ondorioz sor litezkeen zailtasun-egoerak azter eta aintzat har ditzan.

- Nafarroako hezkuntza publikoan presentzialtasunaren aldeko apustuari eusten jarrai dezan ikastetxe publiko guztietan, Covid-19ak sortu duen egoera dela-eta, xede harturik hezkuntza integrala eta aukera-berdintasuna bermatzea.

- Hezkuntzaren aldeko Itun Sozial eta Politiko bat bultzatuz, hezkuntza-sistemari zuzenbide-egonkortasuna emanen diona. Horretarako, solaskide hartuko dira gizartea, Nafarroako hezkuntza-erkidegoak eta hezkuntzako eragileak.

Gizarte zerbitzuen alorrean:

- Helburutzat pertsona duen artatze-eredua sendotu dezan mendekotasunaren arretarako sisteman, desgaitasunaren arretarakoan, eta arreta soziosanitario eta komunitarioko zerbitzu eta baliabide guztietan.

- Bultzatuz gizarteratze-politika aktiboak COVID-19aren ondoriozko egoera berrira egokitu-rik ezar daitezela, bai eta oinarrizko gizarte zerbitzuen zeregin teknikoak eta lagun egitekoak ere, ikusmolde prebentibo, integral eta komunitarioekin.

- Gizarte zerbitzuen eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arteko lan-eredu berria sendotu dezan.

- Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko lege berri bat prestatu dezan, ikuspegi integral batetik, Haurren Eskubideei buruzko Itunak aitortzen duen eran.

Zazpigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

- Beharrezkoak diren egiturazko postuak berma ditzan INAI-NABIk dituen erronkei aurre egiteko, hala nola departamentu ezberdinetan Berdintasunaren Unitateak ezartzea, ahalduzko programak, azterlan eta ikerlanak, Enplegu Planeko transbertsaltasuna, despopulazio-estrategia, 2030 estrategia eta legegintza-garapen osoa.

- Emakume eta neskato desgaituen ahalduzko prozesuak sustatu ditzan eta euts diezaien, haien balioa eta agintea ikusgai egiten eta aitortzen segitzeko erreferenteak sortuz.

- Foru Ogasunak eta Ogasun Ministerioak negoziatu dezaten eta akordio batera iritsi daitezten, horrela Nafarroak jaso ditzan genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituneko funtsak.

- Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroarekin koordinaturik prebentzio eta onbideratzerako arreta integraleko planak taxutu ditzan prostituzio-egoeran dauden emakume eta neskatoentzako, bizimodu-alternatibak antolatuz, laneratze-ibilbideen eta prozesu horretarako laguntza ekonomikoaren bitartez haien ahalbidetze aldera prostituzio-egoeratik ateratzeko aukera, ikusmolde integral eta transbertsal baten bidez, genero-ikuspegitik, eta haien guztien segurtasuna eta giza eskubideen errespetua lehenetsiz.

- Beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan (heldurik Beijing 95 Ekintzarako Plataformak, Europako Parlamentuak, Europako Kontseiluak edo Kongresuak emandako gomendio eta ebazpenei), publizitatean neskatoen sexualizazioa amaiarazteko, joera profesional kaltegarria izaki, duela hainbat urtetik hona salatua eta, orokorki, emakumeen sexualizazioaren adierazpide muturrekoena.

- Baliabide publikoekin finantzaturako ikastetxe guztietan Skolae programa ezartzen segitu dezan, bai eta horietan guztietan bermatzen ere, Nafarroako Gobernuak hezkidetzaren alde eginiko apustu argi bezala; ezen, programaren hasieratik bertatik, ikusi da hezkidetzaren lanabesik egokiena dela gure ikasleek beren bizitza-proiektua askatasunean

eraiki ahal izan dezaten eta beren etorkizunaz erabaki ahal izan dezaten; laburbilduz, jakin ahal izan dezaten begiratzeko, ulertzeko, izaten, ongi tratatzeko, sentitzen, bizitzen, eraikitzen, ekarpena egiten.

- Beren familien etxean LGTBIfobia pairatzen duten LGBTBI+ gazteentzako baliabide gisa aldi baterako harrerako etxebizitzak abiaraz ditzan, haiek ez badaukate bizi ahal izateko behar beste baliabiderik. Horretarako, alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako eskabideen baremazioan irizpide objektibo eta puntuagarri gisa sartuko da beren familiarengandik indarkeria LGTBIfobikoa pairatzen duten gazteak izatea.

- Politika aktiboak bultzatzen, xede dutenak bukaera ematea sexuaren araberako lan-zatiketari, lanbide-sektore feminizatuen lan-prekarietateari, gogoz kontrako aldi batekotasun eta partzialtasunari eta emakumezkoen soldata-arrakalari.

- Zainketa-sistema bat antolatzea, halakoak non, erantzunkidetasun pertsonalean oinarriturik eta behar besteko egitura publikoen gerizpean, modua emanen baitu pertsona guztien pertsona-, familia- eta lan-aldiak bateragarri egiteko, arreta berezia ipiniz emakumeenak diren horietan.

Zortzigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

- Nafarroa Susperitu Planean jasotako ekintzak egin ditzan, plan hori ezinbestekotzat jotzen baita hazkunde ekonomikoa berreskuratzeko, enplegua sortzeko, berreraikuntza ekonomikoa sendo eta inklusiborako eta etorkizunaren erronkei erantzuteko.

- Aurrerapausoak eman ditzan, oro har gizartearen eta, bereziki, enpresa-ehunduraren digitalizazio-prozesuan, banda zabaleko komunikazio-azpiegitura beharrezkoak sortuz, 5G teknologiarik bultzada emanez, horren erabilerrari buruzko prestakuntza emanez herritarrei eta enpresariei, kapital teknologikoa berrituz eta Administrazioa prestatuz nafar gizartearen premia berriei erantzun ahal izan diezaion.

- Apustu tinkoa egin dezan landa-ingurunearen garapen ekonomikoren alde, horretarako ur-, komunikazio- eta datu-azpiegiturak garatuz, bai eta Nekazaritza Politika Erkide berriak emandako aukerak aprobeztatzeko ere, ingurumenaren nahiz ekonomiaren ikuspegitik jasagarriak izanen diren nekazaritza eta abeltzaintzaren bitartez, eta kalitatezkoa izanen den nekazaritzako elikagaien industria bat garatuz. Hori guztia, Nafarroa egituratzeko

eta trinkoago egiteko, lurralde- nahiz gizarte-ikuspegietatik.

- I+G+b susta dezan produktibitatea, enplegua eta ekoizpen-, gizarte- eta ingurumen-prozesuen modernizazio eta eraldakuntza akuilatzeke giltzarri gisa, halako moldez non teknologia eta berrikuntza Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde oso-raino iritsiko diren.

- Ekonomiaren suspertzerako, kalitatezko enpleguaren sorkuntzarako, lurraldearen egitura-kerarako eta despopulazioaren aurkako borrokarako giltzarri diren proiektuetan jo ditzan azpiegiturak, hala nola Nafarroako Ubidea, Prestazio Handiko Trena, Estellerriko 400 MWeko linea, banda zabaleko inbertsioa edo Berrikuntza Digitala Poloa.

- Espezializazio Adimendunerako S3 Estrategiako sektoreak indartu ditzan (automobilgintza eta mekatronika, elikakatea, energia berriztagarriak, osasuna, turismo integrala, sormen-industriak eta industria digitalak) Nafarroaren garapenerako sektore estrategiko gisa, eta gure enpresa eta produktuen nazioartekotzeari bultzada eman diezaión.

- Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren baitan Enplegu Planaren prestaketarekin aurrera segi dezan, eta berri dezan Enplegu Politika Aktiboari buruzko Akordioa, indarreko akordioaren emaitzak ebaluatu ondoren, halatan aurrerapausoak eman ahal izate aldera ekonomia moderno, lehiakor eta bidezko baterantz, zeinak enplegu egonkorra eta kalitatezkoa erakarriko duen.

- Aldeztu ditzan ekintzailtza kooperatiboko programak eta krisian dauden enpresak birmoldatzekoak, ekonomia sozialaren esparruan.

Bederatzigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurkez dezan hamabost eguneko epean Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Legea, Parlamentuan izapidetu dadin.

Hamargarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bultzada handia eman diezaión, legegintzaldian geratzen den honetan, irakaskuntza publikoaren garapenera, Nafarroako Foru Komunitateko eskaintza publikoaren eta ikasle publikoen hazkunderaren mesedetan, guztiontzako kalitatezko hezkuntza sozializazioaren berme gisa, honako honetan gauzatua:

1. Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza- eskaintza publiko bat, halako moduzkoa non ber-

matuko baita herritar guztiek irakaskuntza horiek jaso ahal izatea kalitate, ekitate eta iraunkortasun-bermeko baldintzetan, aurrera eginez hezkuntza-etapa hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoen sarean sartzeko bidean.

2. Unibertitatez kanpoko hezkuntza-eskaintza publikoa diseinatzea eta garatzea, honako hauen bidez:

- Onarpen-prozedura bidezkoa eta inklusiboa, gurasoen bizilekuan/lantokian eskolatze inklusiboa sustatzen duena.

- Euskarazko eta gaztelaniazko eskaintza publiko nahikoa.

- Irakaskuntza publikoan eskolatzea sustatzea, hau da, eskola-unitate publikorik ez kentzea, eskolatze-eskaera guztia asez, eta ikastetxe publiko batean plaza bat eskatzen duten ikasle guztiei eskola-plaza bat bermatzea.

3. Hezkuntza-jarduerak garatzeko beharrezkoak eta nahikoak diren azpiegitura publikoak hornitzea.

4. Plan bat diseinatzea hezkuntza-testuinguruak sustatzeko eta ezartzeko, eremu bakoitzeko ikastetxe publiko ezberdinetako ikasle-en bizikidetzara bideratuak.

5. Erljioaren irakaskuntza eta haren alternatibak legez ezarritako gutxienez murriztea.

6. Irakaskuntzako profesionalen lan-baldintzak eta prestakuntzarako bideak hobetzea.

7. - Helduen etengabeko hezkuntzako euskara-ikastaroa 2020-21 ikasturtean hasiko dela bermatzea.

Hamaikagarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

- Gara dezan apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea, Lagun egiteko animaliak babesteari buruzkoa, eta onets dezan plan estrategikoa, eta isla izan dezan 2021eko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

- Kanpaina bat egin dezan, foru erkidegoko gainerako erakundeekin koordinatuta, herritarrak animalien aurkako tratu-txarrak direla-eta kontzientziatzeko, zeinetan halaber eginen baitira informazio-solasaldiak hezkuntza-mailan, ahal den herritar gehienenganaino heltzeko.

- Indarkeriaren biktima diren emakumeen eta neskatoen lagun egiteko animalien aldi baterako edo behin betiko harrera-sarea sor dezan.

Hamabigarrena.

Nafarroako Parlamentuak gobernu zentralari erreklamatzeko dio urgentziaz ekin diezaion herritarren lan- eta gizarte-eskubideak murriztu dituzten honako arau hauek indargabetzeari:

Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua, eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.

– Indargabetzea lan-erreforma, hasiera batean otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez onetsia eta, gerora Diputatuen Kongresuak dekretu hori baliozkotu ondoren, uztailaren 6ko 3/2012 Legearen bidez onetsia.

